# COVID-19
# HIGIENEA

IBAIZABAL

KUBO

**KUBO robota kalitate handiko materialekin eginda dago, irakasle zein ikasleentzako ikaskuntzako esperientziarik onena eskaini ahal izateko. Gainazalak erabiltzeko eta desinfektatzeko garaian segurtasun arauak betetzeko, ikasgelan lan egiteko eta produktua segurtasun osoz higienizatzeko urrats hauek garatu ditugu:**



## AURRETIK

- Kuboaren kutxa bakoitza eta tapizak ikasturte osoan erabiliko dituzten haurren izenak idatzita dituen eranskailu batekin identifikatzea gomendatzen dugu. Hala, jarraipen zuzena egin ahal izango da.
- Beharrezkoa da irakasleak zein ikasleek eskuak urarekin eta xaboiarekin edo gel hidroalkoholikoarekin garbitzea.
- Lan egingo dugun mahaia behar bezala desinfektatuta dagoela egiaztatzea komeni da.
- Robota, TagTile® fitxak eta tapizak garbitzeko, urarekin eta xaboiarekin bustitako trapua (baina ia-ia lehor) erabili beharko da. Tapizaren ertzak edo osagai elektronikoak (kargagailua edo larakoen konektoreen eremua, adibidez) ez bustitzeko arreta jarri behar da.

## ERABILTZEKO GARAIAN

- Lan esperientzia segurua izan dadin, bi ikaslek soilik erabili ahal izango dute KUBO aldi berean. Hala, segurtasun tarte egokia mantendu ahal izango dute. Garbiketa prozesua errepikatu egin beharko da beste bi ikaslek erabili aurretik.
- Haurrek KUBOren materialak ikaskideekin ez partekatzea komeni da.

## ONDOREN

- KUBOren elementu guztiak erabili ondoren eta gorde aurretik garbitu egin beharko dira.
- Segurtasun handiagoa izateko, lan mahaia berriro garbitzea gomendatzen da, beste jarduera baterako prest uzteko.

---

**Oharra**

*EZ dira paper zapi desinfektatzaileak erabili behar; izan ere, plastikoa kaltetu eta robota desmuntatzea eragin dezakete. KUBOren osagai elektroniko guztietan ura sartzea eragotzi beharko da. Arau horiek ez betetzeak produktuaren bermea baliogabetuko du.*

*KUBO robotarekin lotutako beste laguntzaren bat behar izanez gero, jarri harremanetan Grupo Edelvivesen bezeroaren arretarekin:*

*atencionalcliente@edelvives.es*